

2006ko ekitaldirako aurrekontuak oztopo handirik gabe onartu dira Hego Euskal Herrian. Euskal Autonomia Erkidegoan, PSOeren laguntzari esker, aurreko urteetan baino askoz errazagoa izan da izapidea. Nafarroan, UPNk eta CDNk osatutako gehiengoak erraz onartu ditu aurrekontuak aurten ere, nahiz eta oposizio osoa aurka eduki.

Bistan dagoenez, onartzen edo arbuiatzen dena ez da aurrekontuen edukia; aldiz, gizarteak ez dakizkien eta, batez ere, gure logikaren helmenetik kanpo dauden auziengatik onartzen edo arbuiatzen dira aurrekontuak.

Are gehiago, alderdi politikoek aurrekontuen gainean eztabaidatzen dutenean ez dituzte aztertzen gizartearen gehiengoarentzat garrantzitsuak diren edukiak. Ez dute aipatzen zenbat diru gastatuko den osasunean, hezkuntzan edo etxebizitzan, edo zein den arlo horien egoera, eta, normala denez, ez dute egoera hobetzeko egin behar denari buruzko hausnarketarik egiten, gobernatzen gaituztenen ustez Euskal Herria ondo doa eta.

Gastu publikoaren maila egokia izan dadin, diru-bilketa publikoak behar bestekoa izan behar du; horixe da zerga eta aurrekontu politikek errentaren banaketan izan beharko luketen eginkizuna. Hego Euskal Herrian, ordea, Europan baino askoz diru gutxiago biltzen da proportzioan, eta, ondorioz, askoz gutxiago erabiltzen da gizarte-gasturako. Zer egiten dute gobernatzen gaituztenek errealtatea mozorrotzeko? Propaganda.

Aurrekontuei buruzko eztabaida, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren jardun osoa bezala, propagandaz beterik dago. Esaten dena gauza bat da, eta beste bat, oso bestelakoa, egiten dena. Txosten honen bidez, Hego Euskal Herriko aurrekontu-politikak benetan nolakoak diren jakin ahal izango dugu, bai eta errealtatea gure arduradunek esan ohi dutenetik oso urrun dagoela egiaztatu ere. Ikusiko dugunez, propagandatik ekintzetara jauzi itzela dago.



**1. EUROPAKO AZKENAK BAI DIRU-SARRERETAN BAI  
GIZARTE GASTUAN**

Fiskalitateari buruz argitaratu genuen txostenean ikus zitekeen, **Hego Euskal Herriko** (HEH, Hegoalde) **diru-sarrerak Europako batez besteko sarrerak baino askoz urriagoak dira**, sortzen den aberastasuna erreferentziatzat hartuta. Bestela esateko: HEHko presio fiskala Europakoaren oso azpitik dago. Zehazki, 2003an sortu ziren 100 euro bakoitzetik 32,8 erabili ziren Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) zergak ordaintzeko; Nafarroan, 32,3 zuzendu ziren xede horretara, eta lehengo 15 estatu kideek osatutako Europar Batasunean (15-EB), berriz, 41,8. Diferentzia hori 2006ko ekitaldirako eguneratuz gero, HEHn, Europako batez bestekoarekin alderatuta, 6.985 milioi euro gutxiago bilduko direla ondorioztatzen dugu (5.519 milioi gutxiago EAEn eta 1.466 Nafarroan); eta diferentzia hori urtero-urtero errepikatzen da.

**Zerga-bilketa urriaren ondorioz, HEHko gizarte-gastua ere 15-EBko murriztena da.** Zehatz esateko, 15-EBko gizarte-gastua BPGaren %27,5koa delarik, Hego Euskal Herrikoa %20koa da; horrek esan nahi du 15-EBren aldean BPGaren 7,5 puntuko defizita dugula. Horren arabera, Hego Euskal Herriko gizarte-gastuaren ehunekoa 15-EBkoaren berdina balitz, 2006an 5.756,2 milioi euro gehiago bideratu beharko lirateke gizarte-gastura (4.599,1 milioi gehiago EAEn eta 1.157,1 Nafarroan). Kasu honetan ere urtero errepikatzen den kopuru horrek aukera emango luke EAEko biztanleriaren gizarte-gabeziak hein handian estaltzeko.

**2. PROPAGANDA**

Aurrekontu-proiektuak aurkeztean, aurrekontu sozialak direla behin eta berriro errepikatu arren, aipagarriena ez da gizarte-gastura zuzentzen den aurrekontu-ehunekoa, gizarte-gastu horren maila baizik, bai eta Europako batez bestekoaren gainetik ala azpitik dagoen ere. Eta, ikusi dugunez, gizarte-gastuari dagokionez, Europako azkenak gara.

Horrela, Eusko Jaurlaritzak (EJ) eta Nafarroako Gobernuak (NG) **hori ezkutatzeko propaganda egin** beste irtenbiderik ez dute, benetan egiten dutena gehiago dela sinestarazteko. Argi dago propaganda naroa egiten dutela euren politikari buruz, baina esaten dutenaren eta benetan egiten den gutxiaren artean jauzi izugarria

---

dago. Txosten honetan zehar frogatu egingo dugu jauzi hori, daukagun informazioak ahalbidetzen digun sailetan, bereziki gizartearen ikuspuntutik garrantzi handiena dutenetan.

### 3. EUROPAKO AZKENAK OSASUNEKO GASTU PUBLIKOAN


Ondorengo grafikoan 15-EBko estatuek 2003ko ekitaldian osasunean egindako gastu publikoari dagokion BPG ehunekoak ikus dezakegu, bai eta EJK eta NGK gastatutakoa ere (2003 da Europa mailako informazioa daukaguneko azken urtea).

EAEn, BPGaren %4,4 zuzendu zen osasuneko gastu publikora; ehuneko horrek 15-EBko azken tokian ipintzen du EAE, Nafarroak jarraitzen diolarik, BPGaren %4,7ko gastu publikoarekin. 15-EBko estatu kideetatik eskura daukagun informazioa dagokien 14etako guztiek hura baino aberastasun-ehuneko handiagoa bideratu zuten osasuneko gastu publikora, 15-EBko batez besteko ez-haztatua (hau da, estatu kide bakoitzaren ekonomi pisu ezberdina aintzat hartzen ez duen batez bestekoa) BPGaren %6,4koa izanik. Horren arabera, HEHn, 2003an, 15-EBko BPG ehuneko bera gastatu balitz, gastatu zirenak baino 1.210,4 milioi euro gehiago (991,4 milioi gehiago EAEn eta 219 Nafarroan) gastatu beharko ziren osasun publikoan.

Zenbateko horiek gaurkotzean ikus daitekeenez, **2006an 1.488,7 milioi euro gehiago** (1.226,4 EAEn eta 262,3 Nafarroan) erabili beharko ziren osasuneko gastu publikorako, 15-EBn aberastasunari dagokionez egiten den ahalegina berdintzeko.

---

## OSASUNEKO GASTU PUBLIKOA (BPG %). 15-EB, 2003




Iturriak: ELGE, Eustat eta Instituto de Estadística de Navarra

#### 4. EUROPAKO AZKENAK HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOAN

Hezkuntzan egiten den gastu publikoari dagokionez, Nafarroa da BPG ehuneko txikiena zuzentzen duena (2001ean BPGaren %3,3, horixe baita Europa mailako informazioa daukaguneko urterik hurbilena); bigarren ehuneko txikiena Luxenburgokoa da (BPGaren %3,6) eta hirugarrena EAeko (BPGaren %3,7). Goian aipatutako ildo beretik, 2001ean hezkuntzako gastu publikorako erabilitako aberastasun-ehunekoa 15-EBko batez besteko ez-haztatuaren berdina izan balitz, gastatutakoak baino 926 milioi euro gehiago gastatu beharko ziren Hego Euskal Herrian (694 milioi EAEn eta 232 Nafarroan).

Zifra horiek gaurkotzean egiazta daitekeenez, **2006an**, Europako batez bestekora heltzeko, **gastatuko direnak baino 1.136,2 milioi euro gehiago bideratu beharko liriateke hezkuntzako gastu publikora HEHn** (858,5 milioi EAEn eta 277,7 Nafarroan).

## HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA (BPG %). 15-EB, 2001



Iturriak: ELGE, Eustat eta Instituto de Estadística de Navarra

Aurrekontu-zuzkidurak ez du egiten diren prestazioen kopuru eta kalitatearen isla izan behar, baina argi erakusten du prestaziook hobetzeko ala bere horretan uzteko borondatea. Era horretan, datuek frogatzen dutenaren arabera, **HEHko instituzioek ez dute osasun- eta hezkuntza-sistemak hobetzeko asmorik.**

##### **5. ETXEBIZITZA POLITIKA: DUINTASUNEZ BIZITZEKO ESKASEGIA**

HEHn, gaur egun, etxebizitzarik ezin eskura dezaketen milaka lagun daude, batez ere gazteak, **eta etxebizitzan egiten den gastu publiko urria oso urrun dago eskubide hori bermatu ahal izatetik.**

EAEko eta Nafarroako etxebizitzari buruzko atalean ikusiko dugunez, HEHko instituzioen zuzkidura publikoa oso eskasa da arazo hori zuzentzeko. Baina, gainera, **etxebizitzako gastu fiskalen zioz bildu gabe geratzen den kopurua etxebizitzako zuzeneko gastua baino askoz handiagoa da.**

Zehazki, 2006an, etxebizitzako gastu fiskalak 511,9 milioi eurora iritsiko dira EAEn; hori etxebizitzan zuzenean gastatzen denaren hiru-koitza da ia. Hortaz, Aldundiek etxebizitzaren zioz biltzen ez dutena

Etxebizitza Sailaren gastu publikoa baino hiru bider gehiago izango da.

*Nafarroan*, gauza bera gertatzen da: etxebizitzako gastu fiskalak 127 milioi eurokoak izango dira, etxebizitzako *zuzeneko gastu publikoaren bikoitza ia*.

HEHn, etxebizitzako zerga-arintzeen tamaina kezkarria da, *desgrabazio fiskalak ez direla aurrerakoiak kontuan hartuta*; izan ere:

- Ez diote laguntzen gehien behar duenari.
- Gizarte osoarena izan beharko lukeen zuzkidura transferitzen diete etxebizitza erosten duten pertsoneri.

*Gainera, zerga-arintzeek jabetzari ematen diote lehentasuna, alokairuaren kaltetan*. Zehaztasunez esateko:

- 2006an, EAeko gastu fiskalen %6,8 bakarrik zuzenduko dira alokairura, gainerako %93,2a jabetzara joango delarik.
- 2006ko etxebizitzako gastufiskalaren %3 baino ez da bideratuko Nafarroan etxebizitzen alokairura; gainerako %97a jabetzara joango da.

Gure instituzioek gizarteari egozten diote alokairua baino jabetza nahiago izatearen errua. Baina datuek erakusten dutenez, politika publikoak dira lehentasun hori eragiten dutenak.

Eraikitzen diren etxebizitza babestuen banaketak ere jartzen du agerian **instituzioek jabetza lehenesten dutela**. Izan ere, EAEn 2004an eraikitako babesturiko etxebizitzen %11,3 bakarrik erabili zen alokatzeko, eta Nafarroan, %6,4.

## **6. GIZARTE PREMIAK ESTALI BEHARREAN, AURREKONTUA MURRIZTU**

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak **kopuru bera** aurreikusten dute **sarreretan zein gastuetan**, 2006ko aurrekontu-proiektuetan; horrek esan nahi du ez dutela defizita izaterik espero, eta ez dutela kapital-merkatura jo beharrik izango gastu publikoa finantzatzeko.

Aipatu behar dugu *Europar Batasuneko* gobernuak *defizit garrantzitsuak* izaten ari direla aurrekontuetan. 2004ko ekitaldian, esaterako, 15-EBko batez besteko defizita BPGaren %2,6koa izan zen.

Oreka finantzarioa da EJren eta NGren aurrekontu-proiektu guztietan agertzen den jarrera.

NGri dagokionez, **ez** daukagu kontuen kitapenarekin **azkenean zer gertatzen den jakin ahal izateko** beharrezko informazioa;

---

horrek asko esaten du instituzio horrek gizarte osoarengan eragina duten gaietan darabilen gardentasun faltari buruz, nafar guztien sarrera eta gastu publikoen oraingo kasuan bezala.

EJri dagokionez, oreka finantzarioa aurreikusten badu ere, **superabitarekin itxi ohi ditu ekitaldiak** (1998tik hona, 2000 eta 2001ekoa bakarrik itxi ditu defizit txiki batekin).

Hurrengo taulan, Eusko Jaurlaritzak 1998tik aurrera izan dituen aurrekontu-emaitzak azaltzen dira<sup>(1)</sup>. 1998an eta 1999an, BPGaren %0,3ko superabita egon zen (90,9 eta 103,1 milioikoak, hurrenez hurren). 2000n eta 2001ean, BPGaren %0,1eko defizita jazo zen (52,2 eta 60,5 milioi eurokoak, elkarren jarraian. 2002ko ekitaldian, 231,7 milioi euroko superabita egon zen (BPGaren %0,5), 2003an, 149 milioi eurokoa (BPGaren %0,3) eta 2004an, 312,7 milioi eurokoa (BPGaren %0,6).

EJren kontu publikoen itxierari buruz daukagun behin betiko azken informazioa 2004koa da; 1998tik aurrera superabit handiena agertzen duen urtealdia da hori, hain zuzen ere. Ideia zehatza egiteko, 2004ko superabita Etxebizitza Sailak ekitaldi horretan egindako gastu osoaren bikoitza izan zen; Eusko Jaurlaritzak gizartearen zati handi baten premiarik oinarrizkoenak asetzeko dauzkan baliabideak ere ez gastatu nahiago duela frogatzen duen adibide bat besterik ez da hau.

---

(1) Sail bakoitzaren bilakaeraren azterketa 1998ko ekitalditik aurrera egin dugu, Nafarroan urte horretan hasi baitziren zerga bereziak biltzen.

---



AURREKONTU EMAITZAK. EJ, 1998-2005

EKITALDIA	MILA €-koak	BPG %
1998	90.951,4	0,3
1999	103.110,4	0,3
2000	-52.185,5	-0,1
2001	-60.512,2	-0,1
2002	231.703,8	0,5
2003	149.007,4	0,3
2004	312.737,0	0,6
2005 (*)	577,3	0,0

Iturriak: EAEko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak,  
EAEko 2005eko aurrekontuaren Kitapen Aurreikuspena

(\*): Aurreikuspena

2005eko aurrekontuaren kitapen-aurreikuspenaren arabera, urtealdi hori 0,6 milioi euroko superabitarekin (BPGaren %0,001) itxiko da. Dena den, lehenagoko ekitaldietan benetan jazotako superabitateak kitapen-aurreikuspenetan azaldu izan direnak baino askoz handiagoak izan dira; beraz, pentsa dezakegu 2005eko soberakina ere handiagoa izango dela.

**7. ZOR PUBLIKOA: DIRU SARRERAK LORTZEKO  
AUKERA GAUZATU GABEA**

Ekitaldiak superabitarekin ixtearen ondorioz, EJK eta NGk ez dute aurrekontuak koadratzeko zor publikoa jaulki beharrik; beraz, **zor biziaren pisua** (zor osoari BPGan dagokion portzentajea) **nabarmenki urritu da urtez urte.**

Zehatz azaltzeko, EJren zorra 932,3 milioi eurokoa izan zen 2004an (itxitako azken urtealdia); horren arabera, EJK EAEko **biztanle bakoitzeko** zeukan zorra **447,7 eurokoa** zen. Bestalde, etxebizitza erosi behar izan zutenek **batez beste eraturako hipoteka 160.800 eurokoa** zen 2004ko abenduan.

**Nafarroako Gobernuaren zor bizia** 641,1 milioi eurokoa izango da 2006an, hots, **1.097 eurokoa** Foru Erkidegoko **biztanle bakoitzeko**. Kopuru hori ere oso murrizta da, Nafarroan eraturako **batez besteko hipoteka** 2005eko irailean **156.700 eurokoa** izan dela go-goan izanik.

---

Zenbateko horiek bistan jartzen dute EJren eta NGren jarrera pasiboa, ekonomian esku hartu eta, behar izanez gero, zorpetu beharrean, herritarrei egozten baitiete zorrak egin beharra.

Hortaz, **HEHko instituzioen zorraren pisua gero eta txikiagoa delarik, etxebizitza behar duten biztanleak gero eta gehiago zorpetu beharrean aurkitzen dira.**


2004an, EJren zorra **BPGaren %1,7koa** izan zen, hau da, 1998koa (BPGaren %5,7) baino 4 puntu urriagoa. Beraz, 2004ko zor biziaren pisua 1998ko bera izateko, hiru bider handiagoa izan beharko zuen.

2002, 2003 eta 2004ko ekitaldietan, EJK guztira 1.031 milioi euroko mailegu sindikatuak sinatu zituen finantza-erakundeekin (kreditu-lineak). Hala ere, Eusko Jaurlaritzak euro bat ere ez du erabili mailegu horietatik. Oraingoz ez dakigu partida horiek, edo 2005 eta 2006rako jasotakoak, gauzatuko diren ala ez. Jokabide horrek eta finantzak aurkezteko moduak *Eusko Jaurlaritzaren zorra benetakoa baino handiagoa dela sinestaraztea dute helburu*; berez, mailegu horiek gauzatu izan balira, zor bizia BPGaren %3,7koa izango zen 2004an, hau da, benetan izandakoaren bikoitza baino handiagoa.

NGri dagokionez, horren zor bizia **BPGaren %4,2koa** izango da **2006an, 1998koa** (BPGaren %7,3) **baino BPGaren 3,1 puntu txikiagoa**, alegia. 2006ko zor biziak 1998koaren pisu bera edukitzeko, 2006rako aurreikusitakoa baino 485,3 milioi euro handiagoa izan beharko luke.

---

## EJren ETA NGren ZOR PUBLIKOA (BPG %). 1998-2006



Iturriak: EAEko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak, Eustat, Nafarroako Gobernua eta IEN

### 8. GASTU FISKALAK: SARREREN MURRIZKETA


Gastu fiskalak (Nafarroan, onura fiskal esaten zaie) zergetan **bildu gabe uzten diren kopuruak** dira (zerga-arintzeak, salbuespenak,...), eta nabarmenki murrizten dituzte zerga-bilketa eta, ondorioz, gastu publikoa ere.

Gastu fiskalak **ez dira aurrerakoiak**, ez dietelako biztanle behartsuenei onurarik ekartzen, eta, nolabait, gutxien behar dutentzat dira mesedegarri. Gauzak horrela, *hobe litzateke* kopuru horiek *bildu eta gastu publikoa handiagotzeko erabili*, batez ere, gizarte-gastua gehitzeko.

Aurreikuspenen arabera, **EAEko** Aldundiek 5.793,5 milioi euro utziko dituzte biltzeko gastu fiskalen zioz. Horrek esan nahi du *diru-sarrerak %34,2 handiagoak liratekeela* gastu fiskalik ez balego; galtzen den kopuru horrekin gizartearen hainbat premia estal litezke.

Bildu gabe uzten den zenbatekoa *BPGaren* %9,4 bestekoa da, eta, geroago ikusiko dugunez, gainditu egiten du EJK gastu handieneko 4 sailetan (osasuna; hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa; herrizaingoa, eta justizia, lan eta gizarte segurantz) egiten duen gastua. Halaber, gastu fiskalei *BPGan* dagokien ehunekoa EJK 2006an egingo duen gastu osoa baino 3 puntu txikiagoa da bakarrik.

#### BILKETARI ETA GASTU FISKALARI BURUZKO AURREIKUSPENA. EAE, 2006




Iturria: EAEko Aurrekontu Orokorrak. 2006

Nafarroan, 1.328,2 milioi euro aurreikusi dira gastu fisikaletan 2006rako. Horren arabera, zerga arloko pizgarri horiek ez baleude, diru-sarrerak %28,2 handiagoak lirateke.

Gastu fiskalen zenbatekoa *BPGaren* %8,6 bestekoak dira Nafarroan, 2006an gasturik handiena izango duten bi sailek –Osasun Sailak eta Ekonomia eta Ogasun Sailak– gastatuko dutena baino handiagoa, alegia (azken sail horren barruan Estatuarentzako ekarpenaren ordainketa dago sartuta, 487,7 milioi eurokoa, hots, *BPGaren* %3,16koa).

BILKETARI ETA GASTU FISKALARI BURUZKO AURREIKUSPENA.  
NAFARROA, 2006



*Iturria: Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua. 2006*

Ondorengo taulan, **zergaz zerga** ikus dezakegu HEHko **gastu fiskalaren banaketa**. Bai EAEn bai Nafarroan, gastu fiskal handiena BEZean ageri da, eta, horren ostean, PFEZn eta Sozietateen gaineko Zergan. Zehazki, EAEn:

- BEZean, 2.936,2 milioi eurokoa izango da gastu fiskala; 2006ko gastu fiskalaren %50,7 da hori, gastu osoaren erdia baino gehiago, alegia.
- Hurrengoa PFEZkoa da, 1.869,3 milioi eurokoa, gastu fiskalaren zioz bildu gabe geratuko denaren %32,3, hain zuzen ere.
- Sozietateen gaineko Zergaren bidez 525,5 milioi euroren ordainketa barkatuko zaie zergetan EAEko enpresei; kopuru hori gastu fiskal guztien %9,1 da.

*Nafarroari dagokionez:*

- BEZak, 627,4 milioi euroekin, 2006ko gastu fiskal guztien %47,2 jasango ditu.
- PFEZn, 376,9 milioi euroko zerga-murrizketa egongo da (guztizkoaren %28,4).

- 
- *Sozietateen gaineko Zergaren bidez, Foru Erkidegoko enpresek 196,2 milioi euro gutxiago ordaindu beharko dituzte, hots, gastu fiskal guztien %14,8.*

**Taulak zerga bakoitzeko gastu fiskalari zerga beraren bilketan dagokion portzentajea** ere aztertzeke aukera ematen digu. Kasu honetan, bere bilketarekiko gastu fiskal handiena duena ondarearen gaineko zerga da, eta, horren ostean, BEZa. Berez, EA Eren kasuan:

- *Ondarearen gaineko zergak, 125,8 milioi euroekin, bere bilketaren %52,7ko murrizketa izango du 2006an.*
- *BEZak teorian kobratu beharko litzatekeenaren %41,5eko murrizketa izango du.*

*Nafarroan, berriz:*

- *Ondarearen gaineko zergak, 41 milioi euroekin, bildu beharko litzatekeenaren %89,5eko murrizketa izango du.*
  - *BEZak zerga horren zioz bildu litekeenaren %65eko urripena izango du 2006an.*
-

**GASTU FISKALAK (MILIOI €-kotan, GUZTIZKOAREN %  
ETA BILKETAREN %). EAE ETA NAFARROA, 2006**

	EAE			NAFARROA		
	MILIOI €	GUZT. %	BILK. TEOR. %	MILIOI €	GUZT. %	BILK. TEOR. %
PFEZ	1.869,3	<b>32,3</b>	34,5	376,9	<b>28,4</b>	36,7
ONDAREAREN GAINEKO ZERGA	125,8	2,2	<b>52,7</b>	40,9	3,1	<b>89,5</b>
SOZIJATEEN GAINEKO ZERGA	525,5	<b>9,1</b>	27,3	196,2	<b>14,8</b>	40,3
OINORDETZA ETA DOHAINTZEN G.Z.				4,1	0,3	17,8
EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN G.Z.				2,9	0,2	60,5
<b>ZUZENEKOAK, GUZTIRA</b>	<b>2.520,7</b>	<b>43,5</b>	<b>14,9</b>	<b>621,2</b>	<b>46,8</b>	<b>39,1</b>
BEZ	2.936,2	50,7	41,5	627,4	47,2	65
OND. ESKUAL. ETA EJDEN G.Z.	107,7	1,9	20,2	13,3	1	10
ZERGA BEREZIAK	210,5	3,6	34,50	62,3	4,7	15,6
ZENB. HIDROKARB. SALM. G.Z.	4	0,1	7,3			
ASEGURU PRIMEN GAINEKO Z.	14	0,2	16	3,8	0,3	21,2
<b>ZEHARKAKOAK, GUZTIRA</b>	<b>3.272,8</b>	<b>56,5</b>	<b>19,3</b>	<b>706,9</b>	<b>53,2</b>	<b>45,9</b>
<b>GASTU FISKALA</b>	<b>5.793,5</b>	<b>100</b>	<b>34,2</b>	<b>1.328,2</b>	<b>100</b>	<b>39,3</b>

*Iturriak: EAEko Aurrekontu Orokorrak 2006,  
Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua 2006*

### **9. ZERGA-BILKETA BIDE GABE AGOA**

2006an, **EAEko Foru Aldundien** zerga-bilketa 11.364,4 milioi eurokoa izango dela aurreikusten da, eta **7.623 milioi euro** (sarrera guztien %67) transferituko dizkiote **Eusko Jaurlaritzari**, horrek bere eskumeneko gaitako gastua egin dezan.

Aldundien sarreraren %45,3 zuzeneko zergetatik etorriko da, eta hori baino portzentaje handiagoa, %54,8, zeharkako zergetatik eta tasa eta beste zerga batzuetatik.

**NGren** diru-sarrerak **1.343,2 milioi eurokoak** izango dira; horietatik %54,4 zeharkako zergetatik etorriko da, eta bakarrik %45,6 zuzeneko zergetatik.

**AURREIKUSITAKO ZERGA-BILKETA  
(FORU ALDUNDIAK ETA NG), 2006**

	ALDUNDIAK		NG	
	MILA €-kotan	GUZT. %	MILA €-kotan	GUZT. %
ZUZENeko ZERGAK	5.143.735	45,3	1.343.256	45,6
ZEHARKA. Z. + TASAK	6.220.695	54,8	1.605.045	54,4
GUZTIRA	11.364.430		1.343.256	45,6

*Iturriak: EAEko Aurrekontu Orokorrak. 2006,  
Nafarroako Aurrekontu Orokorraren Proiektua. 2006*

EAEEn eta Nafarroan 2006rako aurreikusitako sarrera-banaketa **atzerakoia eta bidegabea** da, areago oinarrizten baita zeharkako zergetan zuzenekoetan baino. Zeharkako zergak atzerakoiak dira, kontsumoaren arabera zergapetzen dutelako; zuzeneko zergek, ordea, zergadunen errentaren arabera egiten dute. Atzerakortasun hori, gainera, handiagotu egingo da 2006an, zeharkako zergen pisua hazi eta zuzenekoena murriztu egiten delako.



**1. AURREKONTU PROIEKTUA: GASTU PUBLIKOAREN MURRIZKETA 2006an.**

2006ko ekitaldirako aurreikusitako gastua **7.623,1 milioi eurokoa** da. Horrek esan nahi du EAEn sortzen diren 100 euro bakoitzetik **12,4** gastatuko dituela EJK.

Horrek **BPGaren 0,6 puntuko jaitsiera** adierazten du, EJKren gastu publikoak **2005ean** zuen pisuarekin alderatuta, hau da, 345,6 milioi euroko jaitsiera. Pertsonako<sup>(2)</sup> gastu publikoak 2005ekoarekiko izan duen murrizketa 166 eurokoa da. Grafikoan ikus daitekeen bezala, gastuak gorakada harrigarria izan zuen 2005ean; horrek pentsarazten digu ekitaldi horretako itxiera-aurreikuspenak doikuntza-aren baten beharra duela, eta, horregatik, 2005ean benetan egindako gastua baino handiagoa islatzen duela.

Edonola ere, **1998tik aurrerako aldia** aztertzean, **gastu publikoaren pisua benetan murriztu dela** ikusten dugu. Zehazki, 2001eko ekitaldiko igoera izan ezik, EJKren gastu publikoak murrizteko joera jarraitua islatzen du, gobernu honen izaera neoliberala agerian utziz.


Era horretan, 2006rako, **1998koa baino BPGaren 0,5 puntu txikiagoa** den gastu publikoa, hots, **302,9 milioi euro** murriztagoa, jaso da aurrekontuetan. Horren arabera, Eusko Jaurlaritzak 145,4 euro gutxiago gastatuko ditu pertsonako.

Ilido horretan, **2006rako aurreikusitako gastua 1998tik honako urriena izango da**, nahiz eta propaganda ofizialaren bidez euskal gizarteari kontrakoa sinestazteko ahalegin handia egiten den.

---

(2) Kalkulua egiteko, Eustatek biztanleriari buruz agertzen duen azken datua, 2001ekoa, hartu dugu, eta 2.082.587 biztanlekoa da.

### EUSKO JAURLARITZAREN GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (BPG %) 1998-2006<sup>(3)</sup>



*Iturria: EAEko Aurrekontu Orokorrek 2006, EAEko 2005eko aurrekontuaren Kitapen Aurreikuspena, EAEko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak, Eustat*

**Ondorengo taulan, sail bakoitzaren 2006ko gastu-partidak ageri dira, bai eta partida horiei guztizkoan eta BPGan dagozkien portzentajeak ere (azken informazio hori 2005eko ekitaldiari buruz ere agertzen da).**

Gastu handiena aurreikusten duena Osasun Saila da, 2.505,2 milioi eurokoa, hain zuzen ere; EJren gastu osoaren %32,9 eta BPGaren %4,1 bestekoa da. Horren ostean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren gastua dator, 2.046,7 milioi eurokoa, hots, guztizkoaren %26,8 eta BPGaren %3,3 bestekoa. Ondoren, Herri-zaingo Sailaren gastua dator, 524,5 milioi eurokoa (aurrekontu osoaren %6,9 eta BPGaren %0,9), eta, horren ostean, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarena, 303,5 milioi eurokoa (guztizkoaren %4 eta BPGaren %0,5).

(3) EAEko Aurrekontu Orokorren Proiektuan hazkunde ekonomikoari eta inflazioari buruz 2005 eta 2006rako jasotako estimazioetan oinarriturik

**AURREKONTU PROIEKTUA ETA BILAKAERA (MILA €-kotan,  
GUZTIZKOAREN % ETA BPG %). EAE, 2005-2006**


	2006			2005
	AUKTU. PROIEK.	GUZT. %	BPG %	BPG %
OSASUNA	2.505.159	32,9	4,1	4,2
HEZKUN., UNIB., IKERKETA	2.046.670	26,8	3,3	3,5
HERRIZAINGOA	524.540	6,9	0,9	1,0
JUSTIZIA, LANA ETA G. S.	477.284	6,3	0,8	0,7
INDUST., MERK. ETA TURISM.	303.469	4,0	0,5	0,5
KULTURA	223.201	2,9	0,4	0,4
ETXEBI. ETA GIZARTE GAIK	252.203	3,3	0,4	0,4
HERRI LAN ETA GARRAIOAK	198.617	2,6	0,3	0,3
NEKAZARITZA ETA ARRAN.	151.826	2,0	0,2	0,3
OGASUNA ETA HERRI ADMI.	152.050	2,0	0,2	0,3
LURRALDE ANT. ETA INGUR.	107.896	1,4	0,2	0,2
BESTE BATZUK	680.219	8,9	1,1	1,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.623.134</b>	<b>100</b>	<b>12,4</b>	<b>13,0</b>

*Iturria: EAEko Aurrekontu Orokorrak 2006,  
EAEko 2005eko aurrekontuaren Kitapen Aurreikuspena, Eustat*

## **2. OSASUNeko GASTU PUBLIKOA**

Osasuneko gastu publikoa **BPGaren %4,1ekoa** izango da **2006an**, hau da, **2005ean edo 1998an baino 0,1 BPG puntu txikiagoa**. Horrela, Eusko Jaurlaritzak 2005ean baino 78,5 milioi euro gutxiago gastatuko ditu (BPGaren portzentaiatan neurtua), eta 1998an baino 47,1 milioi euro gutxiago. Berriro ere, EJK gai honi buruz egiten duen propaganda-politikoaren kontra jotzen du errealitateak. Izan ere, diskurtso ofizialak premiak eta gastua gero eta handiagoak direla ziurtatzen duen bitartean, datuek erakusten dutenaren arabera, egia da premiak gero eta handiagoak direna, baina aberastasunetik gero eta zati txikiagoa bideratzen da premia horiek aseztera.

## EUSKO JAURLARITZAREN OSASUNeko GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (BPG %). 1998-2006



*Iturria: EAEko Aurrekontu Orokorrak 2006, EAEko 2005eko aurrekontuaren Kitapen Aurreikuspena, EAEko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak, Eustat*

2006an, **osasun arloko erakunde pribatuekiko itunetan** 175,8 milioi euro gastatuko dira; hortaz, Osasun Sailaren gastu osoaren %7 osasun-enpresa pribatuetara transferituko zaie, eta, horrela, murriztu egingo da ematen den osasun-zerbitzuaren kalitatea. Horri, azpikontratatzeko diren zerbitzu ugariak gehitu behar zaizkio (etxeke laguntza, anbulantziak, ebakuntza kirurgikoak, segurtasuna, garbiketa, sukaldaritza,...).

**Farmaziara eta prestazio ortoprotesikora** 564,5 milioi euro bideratuko dira (praktikan, errezeta eta medikamentuetarako zuzentzen dena). Partida hori BPGaren %0,9koa izaten ari da, eta, 2006an, osasuneko gastu osoaren %22,5 izango da, azken ekitaldian pixkanaka igo den portzentajea.

**Zuzkidura publiko eskasak** (osasun-sailburuak berak ere onartu du) honako **bi ondorio larriak** ditu (osasunari buruzko txostenean baloratu ditugu ondoriook dagoeneko, baina, hemen, aurrekontu-proiektuak jasotzen dituen aldagaien arabera aztertuko ditugu):

## 2.1. Osasun-sistema publikoaren kalitatea arriskuan jartzen ari da.

Ildo horretan, proiektuan aipatzen denez, itxaron-zerrendak murrizteko bermeak ezarriko dira, dagokion Dekretuaren bidez (*Euskadiko osasun-sistemaren pentsutan egin beharreko prozedura kirurgiko programatu eta ez-larrietarako irispidea izateko gehienezko epeak zehazten dituen dekretuari buruz ari da*). Dekretu hori erabat arbuigarria da, bere garaian baloratu genuenez, izan ere, besteak beste:

- Itxaron-zerrendako pazienteak sare publikotik osasun pribatura desbideratzea ekarriko du.
- Ez dio osotasunean erantzuten osasun-etxeen saturazio arazoari, programaturik dauden eta larriak ez diren zenbait interbentzio kirurgikoei buruz bakarrik ari da eta.
- Ez du gehienezko eperik bermatzen; izan ere, epe jakin batzuk iraganda, pazienteari osasun-laguntza beste erietxe batean eskatzeko aukera ematen zaiola baino ez du zehazten, baina beste zentro horretan ez da gehienezko eperik bermatzen.
- Laguntza beste osasun-etxe batean jasotzea eskatzen duena pazienteak izan behar dela xedatzen du; beraz, administrazioak aldenitu egiten du beste zentro horretan gerta daitezkeenaren erantzukizuna, eta pazienteari eskualdatzen dio.
- Dekretuan, osasun-laguntzako itunetan aplikatu daitezkeen gehienezko tarifei buruzko arautegian xedatutako diru-kopuruak bakarrik ordaintzeko konpromisoa hartzen da.
- Baimenean adieraziko da gastua osasun-etxeari zuzenean ordainduko zaion, ala pazienteak kostu osoa aurreratu behar duen.

## 2.2. Lan-baldintza okerragoak ekarri dizkie sektoreko langileei, eta ondorioz, langileok mobilizatu egin dira.

Horri dagokionez, osasun publikoko langileen lan-baldintzak okerragotzen dituzten bi alderdi jasotzen ditu aurrekontu-proiektuak:


- *Lan-baldintzei buruzko akordioa* (57/2005 Dekretua) bete egingo dela dio. Akordio hori gutxiengoaren aldeketasunaz sinatu zen, eta ez zituen jasotzen sektorean aldarrikatzen ziren hobe-kuntzak; horregatik, mobilizazioak berriro hasi dira Osakidetzan.

- Aurrekontu-proiektuaren arabera, *Programa-kontratua* osasun arloko jarduera bermatzeko *funtsezko tresna da oraindik ere*. Langileen ikuspuntutik, lanera joaterik ez duten langileen hutsunea ez betetzea dakar programa-kontratuak, eta, ondorioz, aparteko orduak asko ugaritzen dira. Beraz, guztiz arbuigarria da, bai lan arlotik, bai ematen den zerbitzuaren kalitatearenetik. Programa-kontratuak 1.633,5 milioi euroko zuzkidura izango du 2006an, Osasun Sailaren gastu osoaren %65,2, alegia.

### 3. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA

Hezkuntzako gastu publikoa **BPGaren %3,3koa** izango da; horrek **BPGaren 0,2 puntuko jaitsiera erakusten du 2005ekoarekin alderatuta, eta 0,3 puntukoa, 1998koarekiko**. Horren arabera, 2006an 2005ean baino 116,5 milioi euro gutxiago gastatuko dira, eta 1998an baino 169,6 milioi gutxiago.

**EUSKO JAURLARITZAK HEZKUNTZAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (BPG %). 1998-2006**




Iturria: EAEko Aurrekontu Orokorrak 2006, EAEko 2005eko aurrekontuaren Kitapen Aurreikuspena, EAEko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak, Eustat

---

Hezkuntzako gastu publikoaren **murrizketa hezkuntza maila guztietan** islatzen da:

- *Bigarren hezkuntza, osabidezko hezkuntza eta lanbide heziketa.*  
 Maila honek BPGaren %1,3 eramango du 2006an, hots, 2005ean baino 0,1 BPG puntu (56,9 milioi euro) gutxiago eta 1998an baino 0,2 puntu (108,9 milioi euro) gutxiago.
- *Haur eta lehen hezkuntza.*  
 2006an, BPGaren %1,1ekoa izango da gastua, 2005eko ehuneko bera eta 1998an baino BPGaren 0,1 puntu txikiagoa, alegia; beraz, maila hauetako zuzkidura 31 eta 48,6 milioi euro urriagoa izango da, hurrenez hurren, aipatutako urte horietan baino.  
 Zenbateko horren urritasunak eta haur eta lehen hezkuntzako gastuaren bilakaera negatiboak agerian uzten dute EJK 0tik 3 urtera artekoen hezkuntza-tarteari ematen dion garrantzi eskasa. Adin-tarte horren estaldura publikoak urrundik ere ez ditu asetzen biztanleriaren premiak. EJK, gainera, betetzeke utzi zituen bere eginkizunak, udalen esku laga baitzuen 0-2 urtekoen tartea eurek bete behar duten ala ez eta zenbat toki ipini behar diren erabakitzeko ahalmena.  
 2006rako aurrekontu-proiektuak 34,9 milioi euroko zuzkidura jasotzen du 0 eta 3 urtekoen hezkuntza-tarteko transferentziatarako; kopuru hori honela dago banaturik:
  - i) 13,6 milioi euroko diru-laguntza Haur Eskolentzat.
  - ii) 21,3 milioi euroko transferentzia zentro pribatu eta itunpekoentzat; beraz, 0 eta 3 urtekoen tarteko transferentzia guztien %61,1 (diru publikoa) erakunde pribatuetara joango da.
- *Unibertsitateko irakaskuntza.*  
 2006an, unibertsitateko irakaskuntzak BPGaren %0,4 eramango du, hau da, 2005eko eta 1998ko BPG ehuneko bera, nahiz eta, dirutan hitz eginez, 19,3 eta 9,2 milioi euro gutxiago izango diren, hurrenez hurren, urte horietako bakoitzarekin konparatuta.

**EUSKO JAURLARITZAK HEZKUNTZAN EGINDAKO GASTU  
PUBLIKOAREN BILAKAERA HEZKUNTZA MAILAREN ARABERA  
(BPG %). 1998-2006**



*Iturria: EAEko Aurrekontu Orokorrak 2006, EAEko 2005eko  
aurrekontuaren Kitapen Aurreikuspena,  
EAEko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak, Eustat*

#### **4. EUSKARAKO GASTU PUBLIKOA**

Guztira, 101 milioi euro erabiliko dira euskarako zuzkidurarako; kopuru hori etengabe ari da **urritzen 1998tik hona**, hezkuntza-sistemaren euskalduntzean gertatzen ari den murrizketaren zioz:

– *Administrazioaren hizkuntza-normalkuntza*

Atal honetara 16,6 milioi euro (BPGaren %0,03) zuzenduko dira 2006an, horrela 1998tik aurrerako ehunekoari eutsiz.

– *Hizkuntza-politika*


Hizkuntza-politikak 39,1 milioi euro eramango ditu, hots, BPGaren %0,06, 1998tik aurrerako ehunekoa mantenduz, honetan ere.



– Hezkuntza-sistemaren euskalduntzea.

Hezkuntza-sistema euskalduntzeko, 45,4 milioi euro erabiliko dira, hau da, BPGaren %0,07. Atal honek BPGaren 0,01 puntuko murrizketa izan du 2005ekoarekiko, eta 0,06 puntukoa 1998koaren aldean. Era horretan, zuzkidura, dirutan, 1,6 eta 31,3 milioi euro urrituko da 2005 eta 1998koekiko, hurrenez hurren.

**EJK EUSKARAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (BPG %). 1998-2006**



Iturria: EAEko Aurrekontu Orokorrek 2006, EAEko 2005eko aurrekontuaren Kitapen Aurreikuspena, EAEko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak, Eustat

**5. ETXEBIZITZA: ZUZKIDURA URRIEGIA, ATZERAKOIA ETA BIDEGABEA**

Etxebizitzarako aurreikusitako gastu publikoa 177 milioi eurokoa da 2006rako, hau da, BPGaren %0,3, 2002z geroztik bere horretan mantendu den ehunekoa, hain zuzen ere<sup>(4)</sup>.

(4) Kasu honetan, 2002ko ekitaldia hartu dugu erreferentziazat, oraingo Etxebizitza Saila urte horretan osatu zen eta.

**Oso kopuru eskasa da**, arlo honetan dauden behar ugari eta gero eta handiagoei erantzuteko. Higiezinaren merkatuko prezio eta errentak eskuraezinak direlarik, eta etxebizitza arloko politika publiko urriarekin, etxebizitza-premia ezin da ase, kasu askotan.

Zehazki, 2004ko hirugarren hiruhilekoan, etxebizitza libreen batez besteko prezioa 265.000 €-koa zen, baina etxebizitza aldatu behar zutenek ordaindu ahal zuten prezioa 171.010 €-koa zen, eta etxebizitza lehenengoz eskuratu behar zutenek ordaindu ahal zutena, 130.210 €-koa, etxebizitzaren benetako prezioak baino askoz urriagoak bi zenbatakook.

Batez besteko alokairua 711,3 €-koa zen; beraz, alokairua ere ez da irtenbidea, etxebizitza aldatu beharra dutenek 490 € ordaindu ahal baitituzte hilean, eta lehenengo etxebizitza behar dutenek, 419 €. Alokairuaren kasuan ere, errentak etxebizitza behar dutenek ordain dezaketena baino askoz handiagoak dira.

2005ean amaitu da **2002-2005 Etxebizitza Planaren** indarraldia. Esan behar dugu plan hori ez zela behar bestekoa EAEko etxebizitza-behar guztiei erantzuteko, eta, 2005eko ekitaldiari buruzko informazioerik ez daukagun arren, planak **porrot egin duela** baieztatu dezakegu. Planaren 4 urteetatik 3tan, zehazki, aurreikusitako etxebizitza babestuen (Babes Ofizialeko Etxebizitzaren eta etxebizitza sozialen) %90,4 besterik ez da eraiki.

Planean zehaztutakoak baino BOE gehiago eta etxebizitza sozial gutxiago eraiki dira; beraz, defizita etxebizitza sozialetan jazo da. Horrek agerian jartzen du **EJK etxebizitza babestuak (jabetzarakoak, eta errenta altuxeagoak dauzkaten kolektiboentzakoak) erakitzeke joera duela, etxebizitza sozialen (hau da, alokairurako eta errenta urriagoak dituzten kolektiboentzakoak) kaltetan.**

## **6. OINARRIZKO ERRENTA ETA GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK (GLL)**

### **6.1. Oinarrizko errenta**

Jaurilaritzak aurkeztutako aurrekontu-proiektuaren testu artikulatuan adierazten denez, 2006rako, oinarrizko errenta **Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren (LAGS) %86koa** izango da; horren arabera, bi puntuko igoera egongo da 2005eko %84arekin konparatuta. Horrela, bete egiten da hiruko gobernu "berriaren" programa: legegintzaldi honetarako, LAGSaren %86rako igoera planteatzen du 2006an eta, hurrengo ekitaldian, oinarrizko errenta kopuru horretan mantentzea.

Pertsona bakarrekoko bizikidetzaren unitateen oinarritzko errentaren **igoera** onuragarria da, baina **ez da inola ere nahikoa**, batez ere hurrengo urteetan kopuru hori ez gehitzea planteatzen dela kontuan hartuta. Hortaz, oinarritzko errentak **pobreziaren atalasearen azpitik segitzen du**. Horrez gain:

- *Pertsona bat baino gehiagoko bizikidetzaren unitateen oinarritzko errentaren eskala ez da aldatzen*. Oinarritzko errentari pertsona bakoitzeko gehitzen zaion kopurua oso txikia da, eta, gainera, ez da aldatzen.
- *LAGSaren %125eko gehienekoa bere horretan uzten da*. Ezein bizikidetzaren unitatek ezin du oinarritzko errentaren zioz LAGSaren %125 baino gehiago jaso, unitatea osatzen duten kideen kopurua edozein dela ere. Muga horrek ere larriagotu egiten ditu etxe behartsuenen pobrezia-egoerak.

Beraz, aurrekontuetan oinarritzko errentari buruz agertzen diren aipamenek ez dizkiete pertsonari bizimodu duin, autonomo eta kalitatekoa izateko besteko diru-sarrerak bermatzen.

## 6.2. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak

Antzeko zerbait gertatzen da Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako (GLL) partidarekin. Aurrekontu-proiektuan, **30 milioi euroko** zuzkidura jasotzen da laguntza horietarako (2005eko 25 milioien aldean). GLLen gainean, honako bi iruzkin hauek egin behar ditugu:

- **Ez dira eskubide unibertsalak**. GLLak pertsonen premia larri zehatzak estaltzeko unean uneko laguntzak dira. Praktikan, laguntza horien zatirik handiena etxebizitza-gastuak (alokairua,...) estaltzeko erabiltzen da. Baina ez dira eskubide unibertsalak, *aurrekontua dagoen neurrian estaltzen dira eta; aurrekontua amaitzen denean, gastua ere amaitzen da (premia amaitzen ez den arren)*.
- **Partida horretara zuzentzen diren baliabideak ez dira nahikoak**. GLLetarako aurrekontu-zuzkidurak eskasegiak dira urtero, eta, ondorioz, *pertsona asko* geratzen dira *premiarik oinarritzkoenak ase gabe*. Bestalde, aurrekontuaren urritasuna dela eta, administrazioek bizikidetzaren unitate bakoitzarentzako baliabideak murriztea erabaki ohi dute.

## 7. GIZARTE ZERBITZUAK ETA GIZARATERATZEA

Ejk gizarte-zerbitzuen eta gizarteratzearen arloko **eskumen batzuk besterik ez dauzka**, eskumenetako asko Foru Aldundien eta udalen eskuetan daudelarik. Hortaz, zaila da egoeraren eta zuzkiduraren azterketa orokor osoa egitea.

Edonola ere, gizarte-zerbitzuei dagokienez, Ejri dagokio **gizarte-zerbitzuen arloa** arautzeko **legea prestatu beharra**, EAEko egoeraren osoko azterketa egin ondoren.

Gizarte orok bermatu behar du pertsona guztiek, behar dutenean, zainduak izateko duten eskubide unibertsal eta doakoa, baina eskubide hori ez da inola ere betetzen EAEn. Gauzak horrela, **Ejk menpekotasunari buruzko legea prestatu behar du, menpekotasun-egoeran dauden pertsona guztiek zainduak izateko duten benetako eskubidea bermatzeko**, bai eta, horretarako, **istema publiko eta unibertsala eratu ere**.

Gizartean gertatzen ari diren aldaketek *premiazko bihurtzen dute ataza hori*, bai dauden premiak asetzeko, bai emakumeen kolektiborekin aukera-berdintasuna bermatzeko, bai zerbitzu profesional eta kalitatekoa izan dadila lortzeko.

Aurrekontu-proiektuan **gizarteratzearekin eta berdintasunarekin zerikusia duten beste gai batzuk** ere azaltzen dira, eta **zeharka ekin** beharko litzaieke, egiten ez bada ere:

- *Gizarteratzea eta familia-plana*. Partida honek 262 milioi euro (BPGaren %0,43) izango ditu; azken ekitaldietan kopurua handitzen ari bada ere, ez da nahikoa gizarteratze eta lana eta familia bateratze beharrei erantzuteko.

Aurrekontu-proiektuan, 2006-2010 *familia-plana* aipatzen da. Plan horren eduki osoak oraindik ezagun ez badira ere, hauxe azpimarra dezakegu, proiektu honetan esaten denean oinarrituz:

- *Lehenengo bidetik jarraitzeko eta diru-baliabide gutxi zuzkitzeko* joerari eusten zaio. Lehenengo seme/alabagatikoa laguntzak aldi bakarrean eta errentaren arabera emango den zenbateko bat izango dira (ziurrenik, soldatapeko biztanle gehienak kanpoan geratuko dira); bigarren seme/alabagatikoa laguntzak ere zenbateko finkokoak izango dira, eta urte batetik 3 urtera pasatuko dira; hirugarren seme/alabagatikoa laguntzak 5 urtetik 7ra pasatuko dira. Hobekuntza da, baina oso urria.

- *Gizarte-zerbitzuei dagokienez, ez da 0 eta 3 urte bitartekoen tarterako neurririk planteatzen. Lehenengo planak 0 eta 2 urte bitartekoentzako hezkuntza-tartearen inguruan planteatutako asmoak ez dira bete. Familiei laguntzeko eta gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunerako askoz neurri onuragarriagoak ekarriko lituzketen zenbait gizarte-eskubide ere –menpekotasunaren gainekoa kasu– ez dira jasotzen.*
- *Emakumeen aukera-berdintasuna sustatzeko, 4,5 milioi euro erabiliko dira (BPGaren %0,01); kopuru hori irragarria da, emakumeen soldatak gizonenak baino %20 urriagoak direla eta Hego Euskal Herrian emakumeen behin-behinekotasun tasa (%35,7) gizonena (%26,3) baino 9,4 puntu altuagoa dela kontuan hartuta.*  
Berdintasunerako Legea onartzea ez da oso baliagarria, gizarte-premiak estaltzen ez dituzten politikak aplikatzen direnean –bereziki politika horien kaltea emakumeek nozitzen baitute–, eta legea garatzera zuzentzen diren baliabideak eskasak badira.
- *Inmigrazioak 6 milioi euro (BPGaren %0,01) izango ditu; kopuru hori konstante mantendu da azken urteetan. Zuzkidura hori ere urri-urria da, etorkinek pairatzen dituzten bereizkeria- eta esplotazio-egoerak gogoan izanik.*

## 8. INGURUMENA, LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA ETA AZPIEGITURAK

EAEko emisioen maila Kiotoko protokoloa betetzeko baimendutakoa baino %20 handiagoa izan da. Hala ere, EJren 2006rako aurrekontuetan, 38 milioi euro (BPGaren %0,06) besterik ez dira bideratzen **ingurumena babestera**.

Protokoloa ez betetzearen lehenengo erantzulea energia-sektorea da, emisio guztien %33 eragiten du eta; sektore horrek %129 ugaritu ditu emisioak 1990 eta 2004 bitartean. EJK, hala ere, 11 milioi euroko zuzkidura (BPGaren %0,02) aurreikusi du **energia-politika eta -garapenerako**; gure iritziz, politika hori erabat arbuigarria da.

Lehenengo eta behin, EJK *energiaren sorrera nabarmenki areagotzearen aldeko apostua egin du EAEn*, eta energia esportatzeaz ere hitz egiten du, horrek ingurumenean eta pertsonen osasunean dituen eragin kaltegarriak saihestuta, jakina.

Bigarrenik, EJK erregaitzat gas naturala darabilen *ziklo kombinatua* aukeratu du energia sortzeko; beste 2 proiektu ezagutu berri ditugu (bata Araban eta bestea Gipuzkoan). Ohiko zentral termikoak bezain kutsagarria ez bada ere, energia gas naturalaren bidez sortzeak *negutegi-efektuko gasen emisio garrantzitsuak* eragiten ditu. Gainera, EAEk ez dauka gas naturalik, eta, inportatu behar duenez, sortzem duen energian buruaskia ez izaten jarraitzen du. Behar dugun energia EAEn guztia ekoizteko bide bakarra *energia berriztagarriak* dira, baina Eusko Jaurlaritzaren hautua ez da energia mota horretatik pasatzen.

Kiotoko protokoloa ez betetzearen bigarren erantzulea garraioa da, bera baita emisio guztien %25en erruduna; 1990etik 2004ra bitarte, %92 ugaritu ditu emisioak. Aurrekontu-proiektuan, garraioarekin loturiko hainbat alderdi daude:

- **Lurraldearen antolamendua** ere funtsezkoa da gai horretan, baina Jaurlaritzak ez dio garrantzirik ematen; horregatik, 5,3 milioi euro bakarrik zuzentzen dizkio (BPGaren %0,01). Behar-beharrezkoa da lurraldearen antolamenduari buruzko politika eraginkorra eta osokoa sustatzea, lurraldearen antolamenduan eragina duten gainerako politikak ere barne hartuta.

*Aurrekontu-zuzkidura urria* ez ezik, euskal instituzioen politikak *ondorio ezin txarragoak* ditu lurraldearen antolamenduan. Zentro komertzial handiei ematen diete lehentasuna (denda txikien kaltetan), bai eta hiriguneetatik urrun dauden parke teknologikoei, bizitegi-urbanizazioei eta familia bakarrentzako etxebizitzetara (hirigune konpaktuak sustatu beharrean). Horrek guztiak ugaritu egiten ditu gas-emisioak, eta, gainera, mugitu beharra, arriskugarritasuna eta ibilgailu pribatuarekiko menpekotasuna areagotu eta kalte egiten dio pertsonen osasunari.

- **Ohiko trenbidea** garraio biderik eraginkorrenetakoa da, lurraldea egituratzeko eta merkantziak garraiatzeko balio du eta. Hala ere, EJK 96 milioi euro (BPGaren %0,16) baino ez ditu gastatuko trenbideetan 2006an, kopuru hori 1998tik ia berdin mantentzen delarik. Beraz, ez da harrigarria *EAEko trenbide-sistema geldoa eta ezereza izatea eta zaharkiturik egotea*.
- Aitzitik, **Abiadura Handiko Trenaren** proiektura, **Euskal Y** deritzonera, 1,2 milioi euro (BPGaren %0,002) zuzenduko ditu 2006an.

*Abiadura handiko tren-proiektua guztiz arbuigarria da*, ingurumen-inpaktu handiagatik, merkantziarik garraiatzen ez due-

---

lako eta, funtsean, hiriak bakarrik lotzen dituelako (eguneroko garraioaren zatirik handiena probintziala da, EAEko 3 hiriburuen artekoa eguneroko garraioaren %1era ere heltzen ez delarik).

Zuzkidura hori nabarmenki handiagotu beharko da, EJK, duela gutxi jakinarazi duenez, obrak hasteko dirua aurreratzeko asmoa baitu, gero kupoaren bidez deskontatua izateko. Horrek argi erakusten du, berriro ere, prozesu osoan izan duen *gardentasunik eza*.

Esan behar da *1998tik 10 milioi euro* gastatu direla Y proiektuan, eta oraindik ez dela ezer ere egin, gizarteak EAE osoarentzat kaltegarria den proiektu hori onar dezan lortzeko *propaganda izan ezik*.





---

**C. GASTUEN AURREKONTU PROIEKTUA  
ETA HAINBAT ZERGA ALDATZEKOA.  
NAFARROA, 2006**

Nafarroako 2006rako aurrekontu-proiektua zerga batzuk aldatzeko proiektuarekin batera aurkeztu zaio Parlamentuari. Nafarroari buruzko azterketan, bi proiektu horien balorazioa egingo dugu.

Lehenengo, aurrekontu-proiektuari buruz mintzatuko gara, sarrenen ataletik hasita, ondorioetan ez baitugu atal hori aztertu. Nafarroako kapitulu honen gehiena gastuen aurrekontu-proiektuari buruzkoa izango da, bilakaera eta gehien interesatzen zaizkigun partida sozialen bilakaera ere aztertuz. Atala amaitzeko, hainbat zerga aldatzeko proiektuaren azterketa eta balorazioa egingo ditugu.

**1. SARRERA: ERREALITATEA EZKUTATU  
EGIN NAHI DUTE**

Nafarroako aurrekontu-proiektuak 3.380,2 milioi euroko gastua jasotzen du 2006rako. Hala ere, zenbateko horretan **gastu fiskaleko 245,5 milioi euro ere daude sartuta**; horrek esan nahi du %7,8 puztu dutela gastuen aurrekontua. Gastu fiskalak Nafarroako Gobernuak zerga-arintze, salbuespen, hobari eta abarren zioz biltzen ez dituen kopuruak dira, baina benetako gastua bailiran kontabilizatzen ari da.

2006ko AURREKONTU PROIEKTUAN JASOTAKO  
GASTU FISKALAK. NAFARROA

KONTZEPTUA ETA SAILA	€
OHIKO ETXEBIZITZAN INBERTITZEAGATIKO G.F.	122.955.000
ETXEBIZITZA ALOKATZEAGATIKO G.F.	4.038.000
<b>INGURUMEN, LURRALDE ANT. ETA ETXEBIZITZA SAILA</b>	<b>126.993.000</b>
INBERTSIOAGATIKO G.F.	80.254.000
I+G+Bn INBERTITZEAGATIKO G.F.	17.165.000
ENPLEGUA SORTZEAGATIKO G.F.	16.581.000
<b>IND. ETA TEKNOLOGIA, MERKATARITZA ETA LAN SAILA</b>	<b>114.000.000</b>
PENTSIOENGATIKO KENKETEN ONDORIOZKO G.F.	4.458.000
<b>GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA SAILA</b>	<b>4.458.000</b>
INTERES KULTURALEKO ONDASUNETAN INBERTITZEAGATIKO G.F.	7.000
<b>KULTURA ETA TURISMO SAILA</b>	<b>7.000</b>
<b>GASTU FISKALAK, GUZTIRA</b>	<b>245.458.000</b>

*Iturria: Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua. 2006*

Gobernua ekonomian duen partaidetza (gastu publikoaren eta zerga-bilketen bidez) benetan dena baino handiagoa dela sinestara-zi nahi du gastu fiskalak gastuen proiektuan sartuz, horrela **administrazio horren izaera neoliberala ezkututzen saiatzeko**. Eta, horretarako, ez dute erreparorik euren ekintzak makillatu eta nafar-rrak engainatzeko. Izan ere, aurrekontuan islatutakoa benetako gas-tua balitz, Nafarroako Gobernuaren gastu publikoaren pisua BPGaren %21,9koa litzateke, hau da, benetakoa baino nabarmen handiagoa.

Hauxe da Nafarroako Gobernuak amarru hori erabiltzen duen bigarren urtea, eta, aipatu behar da bera dela, administrazio guztie-tatik, hori egiten duen bakarra. Ez da kasualitatea azpijoko hori 2005eko aurrekontu-proiektuan erabiltzen hasi izana, horrela egin ezean, **ekitaldi horretako aurrekontu-zuzkiduran izan zen murrizketa nabaria agerian geratuko zelako**. Beraz, gastu publiko-ak Nafarroako ekonomian duen pisuaren jaitsiera oharkabean pasatzea izan zen jokabide horren helburua.

**2. AURREKONTU PROIEKTUA: GASTU PUBLIKOAK  
EKONOMIAN DUEN PISUA MURRIZTU EGIN DA**

Gastu fiskalei dagozkien 245,6 milioi euroak deskontatuta, 2006rako aurrekontu-proiektuak **3.134,7 milioi euroko** benetako gastu publikoa jasotzen du, **BPGaren %20,3koa**, alegia. Horrek esan nahi du Nafarroako gizartean 2006an sortuko diren 100 euro


bakoitzetik gastu publikora 20,3 zuzenduko dituela Nafarroako Gobernuak.

2006rako jasotzen den portzentaje horrek, BPGaren %20,3koak, 0,3 puntuko jaitsiera erakusten du 2005eko aurrekontu bateratuarekiko; horren arabera, **2005eko gastu publikoaren pisuari ez eustegatik, 2006an 47,2 milioi euro gutxiago gastatuko dira.** Gastu publikoa 81 euro murriztagoa izango da pertsonako.

Denboraldi luzeago bat aztertuz gero, murrizketa are handiagoa da. Izan ere, **1998an** Nafarroako Gobernuaren **gastu publikoa** BPGaren %21,7koa izan zen. Urte horretatik hona, gastu publikoa BPGaren 1,4 puntu **murriztu da**, hau da, **220,5 milioi euro urtean.** Hortaz, Nafarroako Gobernuak 377 euro gutxiago gastatuko ditu biztanleko, 1998an gastatzen zuenarekin alderatuta.

Beraz, gastu publikoak Nafarroako ekonomian duen pisua etengabe ari da urritzen.

#### NAFARROAKO GOBERNUAREN GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (BPG %). 1998-2006<sup>(5)</sup>



*Iturriak: Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua 2006,  
Nafarroako Kontu Orokorrak eta IEN*

(5) Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektuan hazkunde ekonomikoari eta inflazioari buruz 2005 eta 2006rako jasotako estimazioetan oinarriturik.

**Sailez sail aztertuta**, Osasun Saila da aurrekontu-zuzkidurarik handiena duena: 729,8 milioi eurokoa eta guztizkoaren %23,3koa, hain zuzen ere. Ondoren, Ekonomia eta Ogasun Saila dator (horren partidarik garrantzitsuena Estatuarentzako ekarpena da), 612,2 milioi euro eta gastu osoaren %19,5arekin. Hurrengo zuzkidura handiena Hezkuntza Sailarena da, 511,4 milioi euro eta guztizkoaren %16,3arekin. Ondorengo taulan, sail bakoitzaren kopurua eta guztizkoan zein BPGan bakoitzari dagokion pisua ikus daitezke (azken kasu horretan, 2005eko informazioa ere aurkezten dugu, ekitaldi horretarako aurrekontu bateratuan oinarriturik).

**AURREKONTU PROIEKTUA ETA BILAKAERA.  
NAFARROA, 2005-2006**


SAILAK	2006			2005
	AUKT. PROL.	GUZT. %	BPG %	BPG %
OSASUNA	729.742.995	23,3	4,7	4,7
EKONOMIA ETA OGASUNA	612.166.876	19,5	4,0	4,1
HEZKUNTZA	511.359.944	16,3	3,3	3,3
TOKI ADMINISTRAZIOA	241.755.302	7,7	1,6	2,0
GIZ., ONGIZ., KIROLA ETA GAZTERIA	203.370.488	6,5	1,3	1,3
LEHENDAK., JUST. ETA HERRIZAIN.	197.901.473	6,3	1,3	1,1
IND. ETA TEKNO., MERK. ETA LANA	175.949.048	5,6	1,1	1,2
HERRILANAK, GARRAIOA ETA KOMUN.	130.213.700	4,2	0,8	1,0
NEKAZ., ABELAZK. ETA ELIKAG.	124.423.618	4,0	0,8	0,8
INGUR., LURRALDE ANT. ETA ETXEBIZIT.	111.945.000	3,6	0,7	0,7
KULTURA ETA TURISMOA	79.944.270	2,6	0,5	0,4
BESTE BATZUK	15.941.586	0,5	0,1	0,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.134.714.300</b>	<b>100</b>	<b>20,3</b>	<b>20,6</b>

*Iturria: Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua. 2006*

### 3. OSASUNEKO GASTU PUBLIKOA

2006rako aurrekontu-proiektuak 729,7 milioi euroko gastua jasotzen du osasun arlorako, hau da, **BPGaren %4,7** bestekoa. Osasuneko gastu publikoaren pisuaren bilakaeran gorabehera txikiak gertatu dira 1998tik hona, baina **ia-ia berdin mantendu da** (BPGaren 0,08 puntuko igoera aurreikusi da 2005ekoaren aldean, eta BPGaren 0,13 puntukoa, 1998koarekiko).

NAFARROAKO GOBERNUAK OSASUNEAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (BPG %). 1998-2006



Iturriak: Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua 2006,  
Nafarroako Kontu Orokorrak eta IEN

**Osasuneko gastuaren atal zehatz batzuk** aztertzean ikus daitezkeenez:

- 234,9 milioi euroko gastua islatu da aurrekontuan *lehen mailako arretarako*, hau da, BPGaren %1,52koa. *Farmaziako prestazioek* 158,6 milioi euro eramango dituzte, hots, BPGaren %1, lehen mailako arretarako gastu osoaren ia bi heren, alegia.

- *Ospitalez kanpoko laguntzarako*, 97,1 milioi euroko gastua aurreikusi da, hots, BPGaren %0,63koa.
- *Ospitaleko laguntzara*, 362,4 milioi euro zuzenduko dira, BPGaren %2,35, alegia.
- *Lan-osasunerako* aurreikusitako diru-kopurua 4,6 milioi euro dira, hau da, BPGaren %0,03.

**OSASUN ARLOKO ATAL ZEHATZETAKO GASTU PUBLIKOAK  
(MILIOI EUKOTAN) NAFARROA, 2006**

	ZENBATEKOA	BPG %
LEHEN MAILAKO ARRETA	234,9	1,52
OSPITALEZ KANPOKO LAGUNTZA	97,1	0,63
OSPITALEKO LAGUNTZA	362,4	2,35
LAN OSASUNA	4,6	0,03

*Iturria: Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua 2006*

Nafarroako Gobernuaren osasun-politikari dagokionez, baliabide-zuzkidura murriztasun gain, honako bi alderdi hauek azpimarra ditzakegu aurrekontu-proiektuan oinarrituta: aldi baterako kontratazioaren gero eta pisu handiagoa eta kontzertazioaren hazkundera.

Aurrekontuan islatutako langile - gastuaren gehikuntza %5,85ekoa da. Baina nabarmendu behar da aldi baterako langileei dagokien partidaren gehikuntza langile finkoei dagokiena baino 3 puntu handiagoa dela; horrek esan nahi du **2006an aldi baterako plantillaren pisua handitzea aurreikusten dutela, plantilla finkoaren kaltetan.**

**Kontzertazioaren hazkundera** buruz azpimarratu behar da aurrekontu-proiektuaren arabera osasun arloan hainbat zerbitzu azpikontratatu direla (arropa-garbiketa, lekuen garbiketa, segurtasuna, zerbitzu informatikoak, janaria...). Horrez gain, gutxienez 30,13 milioi euro gastatuko dituzte laguntza-itunetan; hona hemen:

- San Juan de Dios klinikarekiko ituna: 10,94 milioi euro.
- Clínica Universitaria deritzonarekiko ituna: 8,21 milioi euro.
- Osasun arloko larrialdiak eta anbulantziak: 8,1 milioi euro.
- Organoen transplantea: 4,52 milioi.
- Oxigenoterapiarako itunak: 2,44 milioi.


- Buru-osasuneko zentroekiko itunak: 2,26 milioi euro.
- Aho eta hortzetako osasun-programa: 1,65 milioi euro.
- Etxeko dialisiak egiteko itunak: 0,49 milioi.
- Lagunduriko ugalketarako itunak: 0,52 milioi.

#### 4. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOIA

2006rako aurrekontu-proiektuak 511,4 milioi euroko gastu publikoa jasotzen du hezkuntzarako, **BPGaren %3,3ko** gastua, alegia.

Ehuneko horretan ere gorabehera txikiak gertatu diren arren, **joera egonkorra erakusten du** (2006rako aurreikusitako kopuruak BPGaren 0,05 puntuko igoera agertzen du 2005ekoarekiko, eta 0,01 puntukoa 1998koaren aldean).

**NAFARROAKO GOBERNUAK HEZKUNTZAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (BPG %). 1998-2006**



*Iturria: Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua 2006, Nafarroako Kontu Orokorrek eta IEN*

### 5. EUSKARARAKO GASTU PUBLIKOA

**Euskararako partidak** aztertzean ikusten dugunez, kopuru handiena eskualde ez-euskalduneko ikastolentzako dirulaguntzetan gastatuko da (1,8 milioi euro), eta, ondoren, euskararen irakaskuntzaren garapenean (1,4 milioi euro) eta udalei euskararekin loturik ematen zaizkien laguntzetan (0,4 milioi euro). Hurrengo taulan, hizkuntzarako aurreikusitako partidak aurkezten ditugu.

Ildo horretan, euskararen egingo den gastu osoa 3,9 milioi eurokoa izango da, hots, **BPGaren %0,025ekoa**.

#### EUSKARARAKO PARTIDAK. NAFARROA, 2006


PROGRAMA	€
ESK. EZ-EUSKALDUNEKO IKASTOLENTZAKO DIRULAGUN. BEREZIA	1.758.489
EUSKARAREN IRAKASKUNTZAREN GARAPENA	1.366.916
EUSKARAREKIN LOTURIKO LAGUNTZAK UDALENTZAT	418.894
EUSKARA GIZARTE KOMUNIKABIDEETAN	246.975
EUSKALTZAINDIAREKIKO AKORDIOA	137.319
NAFARROAKO EUSKARA KONTSEILUA	2.934
NAFARROAKO EUSKARAREN LIBURUTEGIA	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.931.528</b>
<b>BPG %</b>	<b>%0,025</b>

*Iturria: Nafarrokoa Aurrekontu Orokorren Proiektua 2006*

**Euskararen aldeko zuzkidura publikoa etengabe murriztu da**, ondorengo grafikoan ikus daitekeenez. Eskura daukagun informazioaren arabera, 2005eko BPG ehunekoa mantenduko balitz baino 207.400 euro gutxiago gastatuko dira 2006an, eta 2002ko BPGaren arabera baino 953.100 euro gutxiago.



**NAFARROAKO GOBERNUAK EUSKARAREN ALDE EGINDAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (BPG %). 2002-2006<sup>(6)</sup>**



*Iturria: Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua 2006  
Nafarroako Kontu Orokorrak eta IEN*

**6. ETXEBIZITZA: NAFARROAKO GOBERNUARENTZAT EGON EZ DAGOEN ARAZOA**

2006rako aurrekontu-proiektuak 67,7 milioi euroko gastua aurreikusten du etxebizitzarako, hots, **BPGaren %0,4ko gastua**.

**Etxebizitzarako zuzeneko zuzkidura nabarmenki hazi behar da** pertsona askok etxebizitza lortzeko dituzten arazo larriei aurre egin ahal izateko.

Hala ere, **Nafarroako Gobernuak** ez du gai horrekiko inolako interesik erakusten, izan ere, etxebizitzaren egoerari buruzko azterlanik ere ez baitu egiten. Gainera, 2001-2004 Etxebizitza Planaren indarraldia amaituta, hurrengo Plana ezagutarazi ere ez du egin, nahiz eta 2005ean hasi behar zen gauzatzen.

(6) Kasu honetan 2002tik aurrerako informazioa baino ez dugu. 2004ko ekitaldirako, gastu bateratua erabili behar izan dugu (informazioa falta dela eta), egindako gastuaren orde. Euskararen irakaskuntzaren garapenean 2002 eta 2003an egindako gastuari buruzko informazio osoa ere ez daukagu; gastu hori hemen erabili duguna baino handixeagoa izango zen.

Aurrekontu-zuzkidura hain eskasa izanik, ez da harrigarria **2001-2004 Etxebizitza Planean** zehaztutako helburuak urrundik ere bete ez izana. Berez, 4.594 etxebizitza babestu besterik ez ziren eraiki planaren indarraldiaren 4 urteetan; horrek esan nahi du zehaztutakoaren %45,9 baino ez zela eraiki.

#### NAFARROAKO 2001-2004 ETXEBIZITZA PLANAREN KONPLIMENDUA

	2001	2002	2003	2004	GUZTIRA
AURREIK. ETXEBIZITZA BABESTUAK	2.250	2.350	2.650	2.750	10.000
AMAITUTAKO ETXEBIZITZA BABES.	1.621	1.390	938	645	4.594
ERAIKITAKO ETX. BABES. % / PLAN.	72,0%	59,1%	35,4%	23,5%	45,9%

*Iturria: Nafarroako Gobernuko Etxebizitza Saila*

#### 7. OINARRIZKO ERRENTA

Oinarrizko errentak bizimodu duina egiteko aukera emateko bestekoa izan beharko luke. Baina Nafarroako Gobernuaren politika oso zekena da laguntza sozial eta ekonomikoa gehien behar dutenekiko. Izan ere, Nafarroako Gobernuak oinarrizko errentari buruz hartu dituen erabaki guztiak oso kritikagarriak dira:

- **Erreferentziazat** Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata (LAGS) hartu beharrean, EAEAP (Eragin Anitzeko Errenta Adierazle Publikoa, IPREM) **erabiltzea**. Horrela, oinarrizko errenta jasotzen duten pertsonen ez die LAGSak izan duen erosahalten-hobekuntzaren onura hartzeko aukerarik ematen. Oinarrizko errentak erosahalmena galdu du urtez urte azken garaian, LAGSaren igoera inflazioa baino txikiagoa zelako. LAGSan metatutako erosahalten-galeraren zati bat konpentsatzen duen gehikuntza aplikatu denean, EAEAPa hartzen da oinarrizko errentaren erreferentziazat. EAEAParen zenbatekoa lehengo LAGSarena da, eta erosahalmena galtzen segituko du urtez urte. *Ondorioz, oinarrizko errentak ere erosahalmena galtzen jarraituko du.* Oinarrizko errentaren erreferentziak LAGSa izan beharko luke, EAEAPa barik.
- **Oinarrizko errentaren zenbatekoa oso eskasa da**, pobrezia-aren atalasearen azpitik baitago, duda barik. Horrela, bakarrik bizi den pertsonak hileko EAEAParen %80 dauka bermatuta 2005ean (375,84 euro). Bi laguneko bizikidetz-unitateak hile-

ko EAEAParen %95 dauka bermatuta (446,31 euro), eta EAEAParen %10 gehitzen zaio gainerako kide bakoitzeko, EAEAParen %130eko mugarekin (610,74 euro, 6 kide edo gehiagorentzat). Diru horrekin ezinezkoa da bizimodu duina, autonomia eta kalitatekoa izatea.

**2006rako aurrekontu-proiektuak eutsi egiten dio egoera lazgarri horri**, gizarteko egoerarik kezagarrienak amaiarazteko borondate eskasa agerian utziz. Gobernuaren politika antisozialaren adibide esanguratsu bat da hori.

### 8. GIZARTE ZERBITZUAK

Nafarroan, arreta-gabezia itzela dago menpeko pertsonentzat (0 eta 3 urte bitartekoak, adinekoak, urritasunen bat dutenak,...). Alde batetik, **ez zaie eskubiderik bermatzen pertsoneri**, eta une bakoitzean dagoen aurrekontu-zuzkiduraren eta instituzioek gizarte-zerbitzuak garatzearen menpe geratzen dira. Bestalde, **zerbitzuen prestazioa sare pribatuaren bitartez egin dadin sustatzean datza gobernuaren politika**.

Pribatizatzeke eta arlo pribatua subentzionatzeko joera horrek isla argia du aurrekontuetan, batez ere *laguntza soziosanitarioaren* atalean, aurrekontuaren %80 hainbat *erakunderekiko itunetara* zuzentzen du eta; besteak beste, honako hauek nabarmen daitezke, euren zenbatekoa dela eta:

- Adinekoentzako itunak: 12,27 milioi euro.
- Elkarte eta erakundeeekiko itunak: 7,68 milioi.
- Urritasunak dituzten pertsoneri laguntza emateko itunak: 4,46 milioi.
- Buruko osasuna zaintzeko itunak: 3,51 milioi euro.
- Adinekoentzako zentroetako egonaldiak: 3,4 milioi.
- Urritasunak dituztenentzako zentroetako egonaldiak: 1,03 milioi.

Nafarroako Gobernuak bermatu egin beharko luke menpeko pertsona guztiak zainduak izateko duten eskubidea, bai eta eskubide horren estaldura publikoa ere.

### 9. IRUZUR FISKALARI AURRE EGIN GABE SEGITZEN DUTE

2006an, zerga-ikuskapenatarako **aurreikusitako gastua 2,1 milioi eurokoa** da, hots, **BPGaren %0,01ekoa**; ahalegin hutsala da, soldatakoak ez diren errentetan egiten den iruzur fiskal handia kontuan hartuta.

Urtero fiskalitateari buruz aurkezten dugun txostenak **bistan uzten du soldatakoen kolektibokoak ez direnek egiten duten iruzur fiskal itzela**. Ideia zehatza egiteko, datu batzuk gogora ekarri besterik ez dugu:

- Soldatakoen kolektiboak batez beste aitortutako errenta 20.309 eurokoa izan zen 2003an, lanbide-errentak aitortu zituztenena (batez beste, 10.831 euroko errenta aitortu zuten) baino 9.478 euro gehiagokoa eta enpresa-errentak aitortu zituztenena (8.464 euroko batez besteko errenta aitortu zuten) baino 11.845 euro handiagoa, hain zuzen ere.
- Horrez gain, soldatako biztanleriak aitortzen duen batez besteko errentaren eta gainerako errenten arteko diferentzia gero eta handiagoa da urtez urte. Izan ere, soldatako biztanleriak batez beste aitortutako errenta 1.605 euro handitu da 2001 eta 2003 artean; profesionalen kolektiboarenak, aldiz, 404 euro hazi da, eta enpresa-jarduerak aitortzen dituztenena, 90 euro. Era horretan, soldatakoek aitortutako batez besteko errentaren eta lanbide-errentak aitortzen dituztenenaren arteko aldea 1.200 euro handitu da, eta 1.514 euro, enpresa-errentak aitortzen dituztenen errentarekiko.

#### KOLEKTIBO BAKOITZAK PFEZn BATEZ BESTE AITORTZEN DUEN ERRENTA. NAFARROA 2001-2003 (€)

	LANA	LANBIDEA	DIF.	ENPRESA	DIF.
2003	20.309,3	10.831,5	9.477,8	8.464,3	11.845,0
2001-2003	1.604,78	403,62	1.201,2	90,31	1.514,5

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

Zifra horiek aurkeztean, **instituzioen pasibotasuna salatu genuen**, iruzurra desagerrarazteko bitartekoak ezarri ordez, soldatakoak ez diren langileak iruzur fiskala egitera bultzatzen baititu; iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko egiten duen ahalegin ziztrinatik diogu hori. Oraingoan, Nafarroako 2006rako aurrekontu-proiektuari buruzko informazioan oinarriturik, berriro egiten dugu salaketa hori.

Aurrekontuan planteatzen denaren arabera, 2006an **33 pertsona arituko dira zerga-ikuskapenetan**, hau da, **2005ean baino 2 pertsona gutxiago**. Kaltegarri deritzogu horri, nahiz eta eragina hutsala izan, **ikuskatu nahi diren zergadunen kopurua, 350, bere horretan mantentzen baita (baina, berez, ez dakigu zein den urte bakoitzeko benetako emaitza)**.

2003tik hona, zerga-ikuskaritzan jardun beharreko pertsonen kopurua 2tan aldatu da urtero, baina ikuskatu beharreko zergadunen kopurua berdin utzi da, batak eta besteak elkarrekiko zerikusirik ez balute bezala.

#### ZERGA IKUSKARITZAN EGITEN DEN AHALEGINA. NAFARROA, 2003-2006

	2003	2004	2005	2006
GIZA BALIABIDEAK	31	33	35	33
IKUSKATU BEHARREKO ZERGADUNAK	350	350	350	350

*Iturria: Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua. 2006*

### **10. ENPLEGU POLITIKA: DIRULAGUNTZA UGT ETA CCOOrentzat**

Nafarroako Gobernuaren enplegu- eta prestakuntza-politika **bat dator** gobernuak, CENek, UGTk eta CCOOk sinatu zuten **Enplegu Planean** jasotakoarekin.

ELAk planari buruzko balorazio kritikoa egin zuen bere garaian, *beste erakunde batzuk bazterrean utzita negoziatu zela* eta planean *bera sinatzen zuten erakundeak finantzatzeko konpromisoak* jasotzen zirela salatzeaz batera.

Aurrekontu-proiektuaren azterketak garai hartan egin genuen balorazioa berretsi besterik ez du egiten. *Proiektuan, UGT eta CCOOren jarduera zuzenean nahiz zeharka finantzatzeko hainbat partida ageri dira*. Besteak beste, honako hauek azpimarratu nahi ditugu:

- CEN, UGT eta CCOOrekiko ituna, laneko arriskuen prebentzio programetarako: 790.646 euro (ugazaberiarentzat eta aipatutako sindikatu horientzat erdi bana).
- Nafarroako Foru Erkidegoko ordezkarietzako dirulaguntzak, laneko arriskuen prebentziorako: 463.500 euro.
- Emakumearen Kontseiluko kide diren sindikatuak (UGT eta CCOO): 257.500 euro.
- Etorrinei zuzendutako prestakuntza- eta gizarteratze-ekin-tzak gauzatzeko, UGT eta CCOOekin sinatutako hitzarmena: 900.000 euro.

- Lan-merkatuan sartzen laguntzeko ekintzak gauzatzeko, UGT eta CCOOrekin sinatutako hitzarmena: 1.472.370 euro; atal honetako partidarik garrantzitsuena da hau, alde handiz.
- Etengabeko prestakuntzarako, INAFRE fundazioarekin sinatutako hitzarmena: 6.460.000 euro (zati handi bat CENek, UGTek eta CCOOk kudeatua). INAFREk etengabeko prestakuntzarako partidaren zatirik handiena kudeatzen du.
- Lan-gatazkak auzibidetik kanpo ebazteko organoaren finantzaketa: 736.444 euro (organo horretan, UGTk eta CCOOk besterik ez dute parte hartzen).

## 11. ZERGA BATZUK ALDATZEKO PROIEKTUA ETA ZERGA ARLOKO BESTE NEURRI BATZUK

### 11.1. PFEZn ez da inflazioaren eragin guztia neutralizatuko

Nafarroako Gobernuak, 2006an, deflaktatu egingo du PFEZren tarifa; horrek **PFEZren tarteetan inflazioaren eragina indargabetzeko** balio beharko luke.

Baina, Espainiako Gobernuak KPIaren inguruan egindako aurreikuspenei jarraituz, **%2 baino ez ditu igoko tarte bakoitzaren mugak**, nahiz eta azken urteetako prezio-igoera %2 baino askoz handiagoa izan den. Horrela, prezioak %3,7a igo dira 2005n.

Horrek esan nahi du PFEZn egiten den neutralizazioa ez dela erabatekoa, eta nafarrek, **konturatu gabe**, tarifa benetako KPIarekin deflaktatuz gero **ordaindu beharko luketena baino gehiago ordainduko dutela**. Hau da, PFEZa igo egingo da, termino errealetan.

Politika hori ohiko bihurtu da. Ziurrenik, **horri esker**, Gobernuak **zergen jaitiera iragarri ahal izango du berriro** noizbait (PFEZren tarifaren deflaktazio osatugabe horrekin finantzatu ahal lukeena); horrek, bereziki, errenta altuei ekarriko die onura, baina termino errealetan jazotzen ari den igoerak, ordea, eragin berdina du PFEZa ordaintzen duen oreengan.

### 11.2. Presio fiskala gutxituko duten zerga-aldaketak

Gobernuak, 2006an zehar, zerga batzuk aldatzeko asmoa du; ondorioz, **zerga-bilketa murriztu egingo da, eta, beraz, gastu publikoa ere bai**. Zerga-bilketaren urripen hori *enpresentzat eta*

*kolektibo aberatsenentzat izango da onuragarria; aitzitik, kolektibo behar-tsuenak izango dira kaltetuenak, gastu publikoa murriztearen eraginez.*

Hona hemen aldaketa aipagarrienetako batzuk:

- **Ondarearen gaineko Zergaren presio fiskala murriztu egingo da**, gehien daukatenen mesedetan. Zehatz esateko, Zerga honen zioz aitortu beharra eragiten duen zerga-oinarriaren zenbatekoa 300.506,06 euroraino hazten da (601.012,12 euro-raino, bi ezkontideak edo bikote egonkorreko bi kideak aintzat hartuz gero). Horrez gain, zerga-oinarriaren 150.253,03 euroko kenketa berezia ezartzen da, 300.506,06 euroko edo hortik beherako ondareentzat.
- *Higiezineta inbertsio kolektiborako erakunde berriek, euren jarduera alokairurako etxebizitzaren sustapena baldin bada, Sozietateen gaineko Zerga %1eko tasaren arabera ordaintzea.*

*Gainera, areagotu egiten dira alokatzeko higiezinaren sustapenean diharduten erakundeentzako salbuespen eta hobariak.*

Enpresek *arrisku-kapitaleko* erakundeen fondo propioetara egindako diru-ekarpenen zenbatekoaren %20 kendu ahal izango dute Sozietateen gaineko Zergaren kuotatik.

Era horretan, etxebizitza den oinarritzko eskubide unibertsalaren kontura negozioa egiten duten **enpresei murriztu egiten zaie karga fiskala**, sail honetako lehenengo bi puntuetan.

- Europar Batasuneko **beste Estatu kide batzuetan dauden enpleguko pentsio-fondoetarako ekarpenak sustatzen dira**. Alde batetik, onura egiten zaie PFEZn, eta, bestetik, enpresek horrelako fondoetara egiten dituzten ekarpenak kengarritzat hartzen dira.

Horrela, eutsi egiten zaio pentsio-fondo pribatuak bultzatzeko bideari, bestalde, pentsioen erreforma berriro planteatzen delarik.

- **Etxebizitza-kontuak sustatzen dira**, gordailutatuko diru-kopuruak etxebizitza erosten edo birgaitzen erabiltzeko epea 7 urtetik 8ra luzatuz. Horrek, berriro ere, bistan uzten du NGK jabetzaren alde eta alokairuaren kaltetan egiten duen aukera.

Horrela, mesede egiten zaio etxebizitza-kontuen erregimenari, zerga-arintzeetan oinarrituta.

---

Gainera, etxebizitza-kontuek finantza-erakundeei ere dakarkiete onura, erakundeok baitira kontu horietan kitatu arte gordailatutako kopuruak erabiltzen dituztenak. Kontu horien epea luzatzeak ere erakundeei egiten die mesede.

---